

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuako CEIN sozietate publikoak lau enpresa txiki eta ertain abian jartzen lagundu du

Abiarazteko Kapital Fondoak, Caja Navarra partaide duenak, 56.200 euro mailegatu ditu lau ekimenterako, horien bideragarritasun planaren bermea izanik

Viernes, 09 de septiembre de 2011

[Nafarroako Enpresa eta Berrikuntzarako Europako Zentroak \(CEIN\)](#), Nafarroako Gobernuaren sozietate publikoak, lau mailegu ematea onetsi du aurten. Guztira 56.200 euro eman dira, eta ekimen lehiatsu bana sortzen lagundu dute.

CEINEk bere bitarteko finantzarioetako baten bidez ematen ditu mailegu horiek, Abiarazteko Kapital Fondoaren bidez alegia; Caja Navarrak ere parte hartzen du horretan. Maileguan ematen diren zenbatekoak aurrerakinak dira eta ez dute interesik, eta mailegua lortzeko berme bakarra sustatzaileek aurkeztutako negozioaren bideragarritasun plana baino ez da.

Onurak jasotzen dituzten proiektuen inbertsio osoa 212.000 euro da eta 8 enplegu berri sortzen dituzte. Lau ekimenez haien kokalekuaren guneko enpresen sarea dibertsifikatzen eta berritzen laguntzen dute eta lanpostu berriak sortzen dituzte. Arrazoi horiek direla-eta dira ekimen nabarmenenak.

Hauek dira onurak jaso dituzten enpresak: Peluquería Canina Móvil, Baztan inguruko etxeko animalientzako zerbitzua eskaintzen du; Musikem, ikaskuntza eta teknologia berrien aplikazioa bateratzen dituen musikako hezkuntza proiektu bat; Nueva Edad de Piedra, mineraletan jatorria duen papera banatu eta saltzen duena; eta Técnicas de Conducción Segura, aurkako egoeretan ibilgailuak nola erabili ikasteko.

Abiarazteko Kapital Fondoa 1997an sortu zuen CEINEk [Caja Navarrarekin](#), [Nafarroako Lan Enpresen Elkartearekin \(ANEL\)](#), eta [Cederna Garalur](#) elkartearekin elkarlanean. Sortu zenetik, Fondoak 129 enpresa sortzen lagundu du 1,6 milioi euroren maileguak emanda.

Aurrerakinak diren mailegu horien eskatzaileek enpresa proiektu bat aurkeztu behar dute, eta enpresa jarriko den eskualdean produktua berezia dela bermatu beharko dute. Horrez gain, bi urtez egon beharko da abian. Batzorde batek negozioaren bideragarritasuna baloratzen du mailegua eman aurretik. Proiektu bakoitzari ematen zaion gehieneko zenbatekoa 18.000 euro da, interesik gabe. Hiruhileko kuotatan itzuli behar da, kontratua izenpetzen denetik 6 eta 8 hile arteko epetik aurrera. Amortizazio epea 4 urterainokoa da eta ez dago bermerik eman beharrik.